

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

The bilboes



Ezkerrean, Bilbo XVI. mendean, 1575 urte inguruan, Shakespearek bere obretan bertako burdina aipatu baino urte batzuk lehenago. Eskuinean, idazle ingelesa.

LONDRES, 1603. Gerora literatura uni-bertsaleko lanik garrantzitsuenetakoa bilakatu zena argitaratu zen. Pasarte batek honela zioen: “*Sir, in my heart there was a kind of fighting, that would not let me sleep: methought I lay worse than the mutines in the bilboes*”. Hitzok William Shakespearek idatzi zituen, eta Hamlet izeneko pertsonaiaren ahotan ipini zituen, izenburu bereko antzezlanean.

Ordurako argitaratua zegoen *The merry wives of Windsor* obra –1597an idatzia eta 1602an lehenengoz inprimatua–. Stratford-upon-Avon-eko bardoren antzezlan horretan, Falsfatt zaldunak zera esaten dio Pistol izeneko morroiari: “*Next, to be compassed, like a good bilbo, in the circumference of a peck, bilt to point, heel to head*”. Kasu horretan *bilbo* hitzak ezpata esan nahi du. Hamlet-en, aldiz, girgiluez ari da *bilboak* aipatzen dituenean. Finean, *bilbok* burdina esan nahi du Shakespearen garaikideentzat; eta ez edonolako burdina gainera, Bizkaitik zetorren kalitate handiko burdina preziatua baizik. Besteak beste, *Dictionary of the English language* eta *Shakespeare Glossary* lanek hitzaren adiera horiek jasotzen dituzte –gaztelarazko itzulpenetan jatorrizko *bilbo* hori “*espada*” eta “*grillete*” hutsez ordezkatu badute ere–.

Garai haietan euskal burdinaren ospea gorenean zegoen. Forjaketan tradizio eta trebezia handia omen zuten euskaldunek; kalitate handiko lehengai lortzen zen Muskiz, Zerain eta Mutiloako meatzetan; eta iragane-ko haize-oletako lana erraztu eta ekoizpena biderkatu zuten zeharrola berriek. Bilboko eta Tolosako ezpaten edo Durangoko armaduren eta piken parekorik ez zen Europa osoan. Gero, burdin suediarren lehenik, eta errusiarren ondoren, Shakespearek goraiapatutako metalaren distira itzali zuten.

Baina, bestalde, nondik zetorren burdina hura? Bilbotik ala Bilbaotik? Bilboko udalak erabaki du euskaraz ere Bilbao dela hiriaren izena, eta EITBko komunikabideetan hala esaten diote. “Bilbo”-ren aldekoek diote urte eta mende asko direla euskaldunek “a” hori janda esaten dutela. “Bilbao” zaleek ordea, euskarazko jatorrizko izena horixe dela argudiatzen dute.

Argi dagoena da Shakespeareren hizkuntza jatorrean “bilbo” esaten dela, eta Hamleten kezkek “Bilbao ala Bilbo?” baino dilema sakonagoetan dutela jatorria. ■

ARRASTOAK

MARINUS VAN DER LUBBE

absolbitu du Alemanian eman berri den epai batek. Praktikan sententziak ez du inolako zentzurik, holandar gaztea 1934an exekutatu baitzuten, 24 urte zituela. Sinbolikoki, ordea, badu garrantzia. Duela 75 urte, 1933 otsailaren 27an, Berlingo Reichstag-ek su hartu zuen. Kasualitate hutsez, Van Der Lubbe inguruan zebilen eta holandar gaztea jaioterrian alderdi komunistarekin harremanetan egon zela deskubritu zuten naziek; errudun perfektua zen. Egun, oraindik ez dago garbi sutearen jatorria, baina zalantzarik ez da Hitlerrek etekin handia atera ziola. Salbuespen-egoera ezartzeko aitzakia izan zen, eta hura pauso handia zen Hitlerren asmoek aurrera egin zezaten.



Goian, Marinus Van Der Lubbe-ren epaiketa. Azpian, Reichstag sutan.